



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzat «Adineko 98»
Egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezarri
eta aipatu egitarauaren jarduerari ekonomi-laguntzen ematea
arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko
124/1997 FORU DEKRETUA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Berorren bidez Departamento de Acción Social-Gizartekintza Saileko Erakundezko Araudia eta Organigrama Ofiziala onartzen deneko Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 5eko 27/1996 zenbakidun Foru Dekretuaren 11.D artikulua, «Adinekoen ongizateari dagozkion jardueren antolakuntza, kudeaketa eta bultzapena» aipatu Foru Sailari nola dagozkion ezartzen du.

Adinekoentzat jardueren garapena, Gizartekintzak diharduen eskumenetako esparruan barruan, 'Adineko' egitarauaren sorrera izan da, zeinek, jarduera ezberdinaz osatua eta giza-jolaseko helburu batekin, multzo honetarako erretiro aktibo bat bilatzen duela baita 1998 ekitaldirako ere.

Berorren bidez «Ingalaterrara bidaiari ferry-an -Adineko 96» jardueretako sarbidearen baldintzak ezartzen diren ekainaren 24ko 4.511/1996 Foru Aginduak Adineko egitarauaren hasiera suposatuta izan du, 1996rako irailaren 24ko 109/1996 Foru Dekretuaren bidez eta 1997rako otsailaren 11ko 8/1997 Foru Dekretuaren bidez, hurrenez, hurren, osatua izan zela.

1998 ekitaldirako eta Adinekoak direnentzat bizitza-kalitatean hobekuntza bat lortzeko asmotan, norako ezberdinak dituzten bidai batzuk diseinatu izan dira, denek, egonaldiak dirauten bitartean animazioko berarizko plan bat izanik, erkidegoko beste zerbitzu batzuen osagarri gisa aurkeztu eta Adinekoen alorrean Gizartekintzaren jardura berriro ere indartzen dutenak.

«Adineko 98» egitarauaren jarduerak arautzeaz gain eta kasukoak diren aurrekontu-hornidurak daudenez gero, 1998 ekitaldirako, aipatu egitarauaren partehartzeko Ekonomi-Laguntzen kasukoa den jendaurreko deialdia onartuko da, otsailaren 24ko 1/1987 Araubidezko Foru Dekretuaren bidez onartutako Aurrekontuen Alorreko Indarreango Xedapenen Testu Bateratuak laguntza eta dirulaguntzen ematea zabalkunde, bateratasun eta objetibitatezko irizpideetara egokitu eta berauen oinarri arautzaileak Foru Dekretuaren bidez onartuko direla nola xedatzen duen kontutan izanik.

Berorren bidez, Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolakuntza, Jaurpide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 zenbakidun Foru Arauaren 17 eta 64.3 artikuluek emaniko eskumenez baliatuaz, Departamento de Acción Social-Gizartekintza Saileko Titularra den foru diputatuak proposatu eta Aldundiak 1997ko abenduaren 30eko batzarraldian eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1 artikulua.—Helburua

Foru Dekretu honetako helburua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoentzat den «Adineko 98» egitarauaren jarduketak burutzeko sarbidearen baldintzak ezartzea, aipatu Egitarauaren barruhartzen diren



jarduerak burutzeko Ekonomi-Laguntzak deituriko dirulaguntzak arautzea eta berauek emateko eskatzen diren berarizko betekizunak aipatzea da.

2 artikulua.—«Adineko 98» egitarauaren jarduerak

1. «Adineko 98» egitarauaren jarduerak, artikuluko honetako 2 zenbakian aipatzen diren tokietara bidaiak egitean gauzatuko dira eta Foru Dekretu honetako 3 artikuluan ezartzen diren betekizunak dituzten norbanakoei zuzentzen zaizkie.

2. «Adineko 98» egitarauak garatuko dituen jarduerak eta beraien arteko bakoitzarentzat eskaintzen diren plazak hurrengoak dira:

2.1. Londres-era bidaiak	400 plaza.
2.2. Benidorm-era bidaiak	2.500 plaza.
2.3. Balearietara bidaiak	500 plaza.
2.4. Andaluziako kostaldera bidaiak	300 plaza.
2.5. La Manga-ra bidaiak	400 plaza.
2.6. Kanarietara bidaiak	500 plaza.
2.7. Gizarte-termalismoa	200 plaza.
2.8. Erromara bidaiak	200 plaza.

3. Aurreko 2 puntuak ezarri den plaza-kopurua behin behineko izaera du, «Adineko 98» egitarauaren jardueretan eskaini beharreko behin betiko plaza-kopurua, jarduera bakoitza osatuko duten txandak eta baita bidaien eta egonaldiaren iraupena ere Foru Aginduen bidez ezarriko direla.

4. Izaera orokorrean, «Adineko 98» egitarauaren jarduerak hurrengo hauek barruhartzen dituzte:

–Bilbo-norakoaren establezimendura joan eta itzultzea.

–Egonaldia, logela bikoitzean, pentsio erdia (gosaria eta afaria) edo pentsio osoan (gosaria, bazkaria eta afaria), jardueraren arabera. Toki bakar baten onuraduna izatearen kasuan, logela elkarbanatu egingo da.

–Gidari-laguntzailea toki-aldaketan zehar.

–Bidaiaren aseguruak.

5. Ezinbesteko zernolakoak gertatzearen kasuan, «Adineko 98» egitarauaren jardueratan barrusartzen diren zerbitzuak parekoak diren beste batzuegatik ordezkatuko dira.

3 artikulua.—Onuradunak

1. Beraien aukeraketa, ekonomi laguntzak eskatu zein eskatu ez, Foru Dekretu honetan xedatzen denarekin adostasunean egingo den «Adineko 97» egitarauaren jardueratan partehartzeko onuradunek eta beraien laguntzaileek bete behar dituzten betekizunak hurrengo hauek izango dira:

a) 60 urte beteak izan edo 1998. urtean zehar adin hau betetzea.

b) Egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.

c) Ezarkinetan ohiko elkarbizitzan eragina izan dezaketean adimeneko gaitz larririk nahiz kutsabidezko gaisotasunik ez izatea.

d) Norbere buruaz baliatzea.



2. Baita, laguntzaile gisa, ezkontidea edo bikote aitortua onartuko da, nahiz eta artikuluko honetako 1 zenbakiaren a) apartatuan ezartzen den betekizuna bete ez, beti ere aurreko 1 zenbakiaren b), c) eta d) apartatuetan xedatzen diren betekizunak betetzen baditu.
3. Foru Dekretu honetako ondorioetarako, bikote aitortu bezala, egiteko elkarketen kasuko udal-erroldaritzan inskribatuta agertzen dena edo, erroldaritza hau ez egotearen kasuan, zuzenbidearen arabera egiazta daitekena ulertuko da.
4. «Adineko 98» egitarauaren jardueratan partehartzeko betekizunak dira, Foru Dekretu honetako 6 artikuluko xedatzen duenaren arabera, tokiaren esleipena lortu egitea eta ekonomi laguntzen edo dirulaguntzen eskariak ebazten dituen kasukoa den Foru Aginduan aipatzen den zuzeneko aportazioari dagokion zenbatekoa ordaindu egitea.
5. Kasukoa den ekonomi laguntza edo dirulaguntza lortzeko ez da nahikoa izango eskatzaileak eskatzen diren baldintzak eta betekizunak betetzea, hauetaz gainera, ekonomi laguntzaren berriazko eskaria eta, horretarako ezarria den aurrekontu-hornidura kontutan izanik, hau atenditua izan ahal izatea beharrezkoa izango delarik.
6. Ezin izango da, inola ere, diruz lagundutako bidaia bat baino gehiago egin.

4 artikulua.—Izenemateak eta ekonomi laguntzetarako eskariak: aurkezteko tokia eta epea

1. «Adineko 98» egitarauaren jardueretarako izenemate-ereduak eta ekonomi laguntza edo dirulaguntzetarako eskariak Dekretu honen I. eranskinean daude, eskatzaileari emango zaion gordekina, berriz, II. eranskinean agertzen da. Izenemateak egin eta eskariak aurkezteko epea, bestalde, Gizartekintzako titularraren foru diputatuaren Foru Aginduaren bidez onetsiko da.
2. «Adineko 98» egitarauaren edozein jardueratan partehartzea nahi dutenek hurrengo agiri-sorta aurkeztu beharko dute:
 - a) Izenematea, Gizartekintzak ezar dezan ereduaren arabera, erabiltzaile edo litezkeen onuradun denek sinatua.
 - b) Erabiltzaile edo beharbadazko onuradun denetako N.A.N.-ren fotokopia.
3. Izenemateak eta eskariak Bilboko Gran Via 26 zenbakian dagoen Gizartekintzaren egoitza den eraikinaren beheko solairuan astelehenetik ostiralera 8'30etatik 13'30etara bitartean eta baita Gizartekintzako titularraren foru diputatuaren Foru Aginduaren bidez ahalbidetu ahalko diren bestelako berarizko erroldaritzetan ere aurkeztuko dira interesadunen aldetik. Halaber, eskariak, Administrazio Publikoetako Legebidezko Jaurpidea eta Ohiko Administrazio Prozedurako azaroaren 26ko 1992/30 Legearen 38 artikuluan eta aplikatzekoa den legegintza parekidean aurrikusten diren bitartekoen bidez aurkeztu ahal izango dira.
4. Izenemateak, eskariak eta/edo berorrekina batera ekarritako agiri-sortak eskatzen diren betekizunak bete ez, osoa izan ez edo Foru Dekretu honetan eta/edo garapenezko bere arautegian ezartzen denarekin adostasunean hutsak edukiko balituzte, Kontroleko eta Erakundezko Jardueren Zerbitzuaren aldetik errekerimendua egingo zaie interesadunei izenemate, eskari eta/edo agiri-sortaren huts edo gabeziak kasuko zernolakoa Gizartekintzako egoitzaren Iragarkien Oholtzean argitaratzen den egunetik zenbatutako hamar (10) lanegunetako epean zuzentzeko, horretara ez egitearen kasuan, espedientea besterik gabe artxibatu egingo dela ohartuaz, Administrazio Publikoetako Legebidezko Jaurpidea eta Ohiko Administrazio Prozedurazko azaroaren 26ko 92/30 Legearen 71 artikuluan aurrikusten denarekin adostasunean, interesadunak bere eskaria bertan behera utzi duela ulertu eginaz.



5. Kontroleko eta Erakunde-zko Jardueren Zuzendariaren Ebazpenaren bidez, «Adineko 98» egitarauaren jardueratan aurre-izenematea egiten dutenei sendabidezko baliotze bat eskatu ahal izango zaie.

6. «Adineko 98» egitarauaren jardueretan partehartzeko izenematea eta ekonomi laguntza edo dirulaguntzaren eskaria aurkezteak, eskatzailearentzat eta, bere kasuan, laguntzailearentzat, Foru Dekretu honetan eta/edo garapenezko bere arautegian ezartzen diren baldintzak eta, bereziki, beraien azken aplikazioa jarduerak egiteari egokitasunez aplikatzea bilatuko duten Ekonomi-Laguntza edo dirulaguntzak kudeatu eta ordaintzeko prozedimendua onartzea eta baita Ekonomi-Laguntza edo dirulaguntzen zenbatekoa beraien arabera modulatzeko den P.F.G.E.Z. edo pentsioetako datuak frogatzera iristea ere suposatuko ditu.

7. Izenematea edo eskaria betetzean iruzur edo gezurretan aritu edo Foru Dekretu honetan eta/edo garapenezko bere arautegian xedatzen dena betetzen ez dutenek lorturiko tokia galdu egingo dute, jadanik kasuko txanda gozatu ez egitearen kasuan. Hau hasita egotearen kasuan, tokia bere osotasunean ordaindu beharko dute, indarrean dagoen arautegiaren aplikazioan bidezkoak diren ekintzapideen kaltetan gabe.

5 artikulua.—«Adineko 98» egitarauaren jardueren finantzaketa eta ekonomi laguntzen edo dirulaguntzen kudeaketa

1. «Adineko 98» egitarauaren jarduerak beraien onuradunek eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzeko dituzte Foru Dekretu honetan aipatzen diren terminoetan.

2. «Adineko 98» egitarauaren jardueretan partehartzeko aukeratuak diren interesdunak ordaintzeko diren kopuruak eta, honen ondorioz, Gizartekintzak emaniko ekonomi laguntza edo dirulaguntzak Foru Aginduaren bidez ezarriko dira, ekonomi laguntza edo dirulaguntzak artikuluko 3 zenbakian ezartzen diren ehunekoen arabera kalkulatzeko direla.

3. Jardueraren kostu osoari gagozkiola, «Adineko 98» egitarauaren jarduerak burutzeko gehienezko ekonomi laguntza edo dirulaguntzak, Foru Dekretu honetan esleitzen diren aurrekontuzko muga barruan, hurrengo hauek dira:

3.1. Gizarte Ongizateko Fondoaren laguntzak (G.O.F.), Zergabidezko Besteko Pentsioak (Z.B.P.) edo Minusbaliatuen Gizarteratzeko Legearen dirulaguntzak (M.G.L.), Gizarteratzeko Gutxienezko Sarreraren (G.G.S.) erabiltzaile-jasotzaileak eta urteko 540.000 pezetatik beherako sarrerak dituztenak	%85
3.2. 540.001 eta 750.000 pezeta bitarteko urteko sarrerak dituzten jasotzaileak	%65
3.3. 750.001 eta 1.000.000 pezeta bitarteko urteko sarrerak dituzten jasotzaileak	%45
3.4. 1.000.001 eta 1.250.000 pezeta bitarteko urteko sarrerak dituzten jasotzaileak	%25
3.5. 1.250.001 eta 1.500.000 pezeta bitarteko urteko sarrerak dituzten jasotzaileak	%15

Onuradunak ordaindu beharreko kopurua biribildu egingo da «Adineko 98» egitarauaren jarduerak merkataritzan jartzerakoan.

4. Aurreko 3 puntuan aipatzen diren urteko sarreraren kalkulurako, oro har, eskatzaile eta laguntzailearen 1996 ekitaldiko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Oinarri Ezargarrria hartuko da kontuan eta, errentaren aitortpena aurkeztu ez dutenen kasuan, eskatzaileak eta laguntzaileak 1996. urtean jasotako pentsioen urteko zenbateko osoa.

5. Aurreko zenbakian xedatzen dena hala izanik ere, ezkontide edo bikote aitortuen kasuan 1,2 baliodun koefiziente zuzentzaile bat egongo da eta ezkonduen edo bikote aitortuaren sarreraren batazbesteko



aritmetikoari aplikatuko zaio; halaber, eskarian ezkontideen edo bikote aitortuaren kide bakar bat agertzen denean, ezkontideen edo bikote aitortuaren sarreren %50ari aplikatuko zaio aipaturiko koefiziente zuzentzaile hori.

6. Aurrean aipatzen diren datuak, Kontroleko eta Erakunde-zko Jardueren Zerbitzuak eskuratu eta egiaztatuko ditu.

7. «Adineko 98» egitarauko jarduera baten onuradunak, bestalde, zuzenean emango dio Bizkaiko Foru Aldundiak akuraturako enpresari, plazaren behin-behineko esleipena egin eta Gizartekintzako titularra den foru diputatuak emakidaturiko ekonomi laguntza edo dirulaguntza jakinarazten zaioneko Ebazpenean eman beharreko ekarpen gisa ager dadin kopurua. Ekarpen zuzen hau plazaren benetako kostutik Gizartekintzak, hala balegokio, emaniko dirulaguntza kendu ondoren gerta dadin kopuruaren baliokidea izango da. Kontraturiko enpresak, berriz, ordainketa egiaztatuzko arauz edo kontratuz ezar daitezzen agiriak eta frogagiriak bidali beharko dizkio Gizartekintzari. Kontraturiko enpresari ordaindu izana egiazta dadinean gauzatuko da behin-betiko esleipen edo adjudikazioa, Foru Dekretu honetako 7 artikuluan arautzen den bezala.

8. Foru Dekretu honen babespean «Adineko 98» egitarauaren jarduerentzat eskatu eta ematen diren ekonomi laguntza edo dirulaguntzek, aurrekontuzko muga gisa, ehun milioi (100.000.000) pezetako kopurua izango dute eta Saila (01), Erakunde-zko (0303), Egitarau (310303), Ekonomia-zko (46100) eta hurrenkera-zenbakia (01250) bezala izendatuta dagoen 1998 ekitaldirako den aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira.

6 artikulua.—Plazen behin behineko esleipena eta itzarote-zerrenda

1. Izena eman eta Foru Dekretu honetan arautzen diren ekonomi laguntza edo dirulaguntzetarako eskubidea izateko betekizunak betetzen dituztenak, plazen ausazko esleipena egin aurretik, onuradun gerta litezkeen zerrendan sartuko dira, ekonomi laguntzari edo dirulaguntzari beren-beregi uko egin diotenak eta Foru Dekretu honetan xedatutakoaren arabera kanporatu beharrekoak zerrenda horretatik kanpo geratuko direla.

2. Gizartekintzako titularra den foru diputatuak «Adineko 98» egitarauaren jardueretarako ekonomi laguntza edo dirulaguntzen eskariak ebatziko dituen kasuko Foru Agindua emango du, eskatu den dirulaguntza, bere kasuan, behin behineko eran eman edo ukatuaz, dueneko kopurua adieraziz, aipatu Foru Agindua, Gizartekintzako egoitzaren Iragarkien Oholtzean argitaratzearen bidez interesadunei jakinaraziaz, Administrazio Publikoetako Legebidezko Jaurpidea eta Ohiko Administrazio Prozedurazko azaroaren 26ko 92/30 Legearen 59.5 artikuluan aurrikusten denarekin adostasunean.

3. «Adineko 98» egitarauaren jarduerentarako plazak, jendaurrekoa denez, notariaren aurrean egingo den ordenagailu bidezko esleitzeko sistema aleatorio baten bidez ezarritako hurrenkerearen arabera esleituko dira behin behineko eran.

4. Gizartekintzako Kontrol eta Zerbitzu Nagusietako zuzendari nagusiak 'Adineko 98' egitarauaren jarduera ezberdinetarako plazen behin-behineko esleipena ebatziko du, eta aipatu Ebazpena interesadunei jakinaraziko zaie Gizartekintzako egoitzaren Iragarkien Oholtzean argitaratuz, Administrazio Publikoetako Legebidezko Jaurpidearen eta Ohiko Administrazio Prozedimenduaren azaroaren 26ko 92/30 Legearen 59.5 artikuluan aurrikusten denarekin adostasunean, interesdunei banan-banako ere jakinaraziko zaiela.



5. Plazarik lortzen ez duten eskariak automatikoki pasatuko dira itxarote-zerrenda bat osatzera, plazen esleipen aleatorioan ateratzen den hurrenkeraren arabera, beste onuradun batzuen uko egitearen ondorioz plazen onuradunak izatearen kasuan ekonomi laguntza edo dirulaguntzarako izan litzaketen eskubideak mantendu eginaz.

6. Txanda edo irteera batean gertaturiko plaza hutsak beteko dituzten itxarote-zerrendako onuradunen aukeraketa «Adineko 98» egitarauaren jarduerak izapidetu eta kudeatzen dituen unitateak egingo du itxarote-zerrendaren hurrenkerari jarraituaz, eta interesdunei banan-banan jakinaraziko zaie.

7 artikulua.—Plaza gordetzea eta behin betiko esleipena

1. Konturako sarreraren izaeraz, interesdunek, «Adineko 98» egitarauaren jarduera ezberdinetako plazen behin-behineko ebazpena ematen duen Gizartekintzako Kontrol eta Zerbitzu Nagusietako zuzendari nagusiaren ebazpena Gizartekintzaren egoitzako iragarki-oholean argitaratuz jakinarazten zaienetik hasita zenbatu beharreko hamar (10) egun igaro baino lehen, esleituriko plaza gordetzeko ordainketa egin beharko dute, gertaera honek plaza behin-betiko bermatuko duela, hurrengo zenbakietan xedatzen dena salbu.

2. Plazen behin betiko esleipena, interesdunek Bizkaiko Foru Aldundiak kontraturiko enpresari jarduera finantzatzeko aportazio zuzenaren zenbateko osoa ordaindu izanaren justifikazioaz egingo da, esleitu zaien txandaren irteera baino berrogei (40) egun lehenago, irteera martxoan eta apirilean dituzten txanden kasuan ezik, horietan ordaintzeko epea aipatu irteera baino sei (6) egun lehenagokoa izango dela, aipatu sarrera justifikatu ezean eskubideak galdu eginaz.

3. Artikulu honetako 1 eta 2 zenbakietan aipatzen den zenbatekoa emaniko epean ordaindu ez egiteak, behin behineko eran esleituriko plazari uko egitea suposatuko du eta hura, 6 artikuluko 6 zenbakian ezartzen den aukeraketa-sistemaz betea izango den plaza hutsen zerrendara pasatuko da.

4. Itxarote-zerrendatik datozen onuradunek, berriz, aukeratuak izan direla jakinarazi zaienetik hasita zenbatu beharreko hamar (10) eguneko epea igaro baino lehen egin beharko dute plaza gordetzeko ordainketa, konturako sarrera eginez, eta horrek plaza behin-betiko ziurtatuko die hurrengo zenbakietan xedatzen dena salbu.

5. Itxarote-zerrendatik datozen onuradunei dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiak kontraturiko enpresari jarduera finantzatzeko eman beharrekoaren zenbateko osoa ordaindu izana justifikatzean egingo da plazen behin-betiko esleipena, esleitu zaien txandaren irteera baino berrogei (40) egun lehenago, irteera martxoan eta apirilean dituzten txanden kasuan ezik, horietan ordaintzeko epea aipatu irteera baino sei (6) egun lehenagokoa izango dela, aipatu sarrera justifikatu ezean eskubideak galdu egingo direla. Esleituriko irteera-txanda aipaturiko berrogei (40) eguneko epea baino lehenago irtetekoa bada, aukeratua izanaren berri eman ondorengo sei (6) eguneko epea igaro baino lehen egin beharko da ordainketa, berau frogatu ezean eskubideak galdu egingo direla.

6. Artikulu honetako 4 eta 5 zenbakietan aipatzen den zenbatekoa emaniko epean ordaindu ez egiteak, behin behineko eran esleituriko plazari uko egitea suposatuko du eta hau, 6 artikuluko 6 zenbakian ezartzen den aukeraketa-sistemaz betea izango den plaza hutsen zerrendara pasatuko da.

7. Behin txandak hasiaz gero interesdunek inolako jakinarazpenik jaso ezean, eskaria gaitzeritzia izan dela ulertu beharko da.



8 artikulua.—Uko egitea

1. Edozein eskatzailek eta/edo laguntzailek «Adineko 98» egitarauaren jarduera ezberdinetarako edozeinetan esku hartzeko izenematea eta/edo eskaria bertan behera utzi ahal izango du, bertan behera uztea edo uko egitea beste izapiderik gabe onartzen delarik.
2. Zuzeneko aportazioari dagokion osoko edo zatiko sarrera egin ondoren, erabiltzaileak esleitu zaion edo bera aukeratua denerako plazari uko egingo balio, «Adineko 98» egitarauaren jarduera egiteratzeko akuraturia izan den enpresak, Gizartekintzaren aldeko aurretiazko frogapenaz, hark ordaindu duen zenbatekoa itzuli egingo du, kudeaketa-gastu lez ezin izango dela 2.500 pezetatik gorako zenbatekoa kendu. Bidaia hasita balego, aldiz, ez da itzulketarik izango.
3. Bidaia adostuak arautzen dituen ekainaren 6ko 21/1995 Legeko 9.4 artikulua betez, aurreko 2. atalean aipatzen den kopurua ez da enpresa horrek berari akuraturutako zerbitzuak bertan behera uzteagatik aplikatu lezakeen zigorrarekin bateraezina.

9 artikulua.—Ekonomi laguntzen edo dirulaguntzen ordainketa

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko Adinekoentzat den «Adineko 98» egitarauaren jarduerak burutzeko ekonomi laguntzak behin-betikoak izango dira, horretarako eskumena duen Foru Erakundeak, haiek emateko zergatiak desagertu direlako, edo onuradunak nahiz beronen ordezkariak ekonomi laguntzari beren-beregi uko egin diolako edo hark bere betekizunak bete ez dituelako, ekonomi laguntzaren dueseztapena berariaz ebazten ez badu, behinik behin. Foru Dekretu honek arautzen dituen jardueretan, otsailaren 24ko 1/1987 Araubidezko Foru Dekretuak onartutako Aurrekontuen Alorreko Indarreango Xedapenen Testu Bateratuan xedatua eta abenduaren 21eko 11/90 Foru Arauaren VII. Erabaki Gehigarriak eta baita abuztuaren 4ko 1.398/93 Erret Dekretuak aldatua den Aurrekontuen Alorreko Indarreango Xedapenen Testu Bateratuan xedatzen dena aplikatuko da.
2. «Adineko 98» egitarauaren jarduerak burutzeko ekonomi laguntzen edo dirulaguntzen ordainketaren antolaketa bateangoa izango da berauen onuradunentzat, edonola ere, ematen dueneko Foru Aginduan espreski aurrakusten diren helburuetarako emana den kopuruaren aplikatzearen eta lehenago aipatu diren jarduerak egiteratzeko bere zerbitzuak eskaini ditzan Bizkaiko Foru Aldundiak aukeratzen duen enpresak eskainitako zerbitzuak ordaintzearen baldintzapean geratzen delarik.



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Lurralde Historikoko adinekoentzat «Adineko 98»
Egitarauaren jarduerak burutzeko sarbideko baldintzak ezarri
eta aipatu egitarauaren jarduerari ekonomi-laguntzen ematea
arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 30eko
124/1997 FORU DEKRETUA.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.—Gizartekintzako titularra den foru diputatuari, Foru Dekretu honetan aurrikusten denaren garapen, egiteratze eta aplikaziorako Itunak sinatu eta bidezkoak diren xedapenak emateko eskumena ematen zaio.

Bigarrena.—Foru Dekretu honetan aurrikusten ez den guztian, Administrazio Publikoetako Legebidezko Jaurpidea eta Ohiko Administrazio Prozedurazko azaroaren 26ko 1992/30 Legea eta baita aplikatzeko bidezkoak gertatzen diren indarreango kasuko legezko xedapenak aplikatuko dira.

Hirugarrena.—Foru Dekretu hau 'Bizkaiko Aldizkari Ofizialean' argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 1997ko abenduaren 30ean.

Ahaldun nagusia,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA

Gizartekintzako foru diputatua,
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA